MUSEO CHILLIDA LEKU

**Chillida Leku** is located on the outskirts of Hernani near San Sebastián and comprises a sculpture park and an exhibition space inside the converted *caserío Zabalaga*, a traditional Basque country house dating from the sixteenth century.

Founded by Eduardo Chillida during his lifetime, it is home to the most comprehensive body of works by the artist. Since first opening in 2000, this museum dedicated to Eduardo Chillida has upheld its mission to promote and conserve his work.

## Job profile: Retail Store Manager

Based in Chillida Leku, as Retail Store Manager you will be passionate about art and art publications as well as ensuring an exceptional experience for every visitor and maintaining exemplarily retail standards.

*Duties include, but are not limited to:*

- Driving excellent customer service standards within the store and providing an exceptional customer experience without fail;
- Consistently measuring KPIs to drive customer engagement and customer experience;
- Maintain a consistently high standard of presentation within the store, including displays/visual standards, stock condition and general cleanliness;
- Stock control and loss prevention: react to sales trends and communicate regular updates to the Product Development Coordinator to ensure all operational demands are met;
- Management of the store retail team, including training, performance management, rostering, recruitment and well-being;
- Regular reporting, analytics and feedback as and when required by the Direction of the Museum;
- Ensure all store operations are maintained in your absence including adequate staffing and opening and closing procedures;
- Maintaining operational costs within set budgets;
- Maintaining the security of the shop premises, stock and all shop monies;
- Responsible for the maintenance of the stockrooms and all Retail back-of-house areas;
- Suggesting marketing initiatives and events in line with the activities of the Museum;
- Ensuring all paperwork is submitted to the relevant parties in a timely manner;
- Responsible for managing stock transfers to other stores and the efficient receiving of stock deliveries.

MUSEO
CHILLIDA
LEKU

*Requirements:*

- 3+ years store leadership experience, preferably in a museum, gallery, publications or high-level retail environment;
- Strong merchant skills and a history of delivering financial results;
- Excellent visual merchandising and display skills;
- Strong written and verbal communication skills;
- Be fluent in English, Spanish and Euskera; other languages are a plus.
- Proven record of hiring and developing great talent;
- Experienced in coaching, counselling & conflict resolution;
- High level of computer literacy, to include MS PowerPoint, Word, Excel and Outlook.

**Position Type and Expected Hours of Work**

This is a full-time position of 40 hours. There is a requirement to work irregular hours including weekends and bank holidays.

→ This a 5 day a week role and full flexibility across weekdays and weekends between the hours of 0730 and 2230 will be required.

Please submit your resume and cover letter, including references by email only to: rrhh@museochillidaleku.com

---

**Chillida Leku** Hernani kanpoaldean dago, Donostiatik gertu, eta eskultura-parke batek eta barneko erakusketa-espazio batek osatzen dute, hamaseigarren mendeko Zabalaga baserri tradizionalean.

Eduardo Chillidak sortu zuen bizi zenean, eta artistaren lanen multzo osatuena gordetzen da bertan. 2000an ireki zenetik, Eduardo Chillidaren omenezko museo honek bete egin du bere egitekoa: artistaren lana ezagutzera ematea eta kontserbatzea, alegia.

MUSEO
CHILLIDA
LEKU

**Lan-eskaintza: Dendako arduraduna**

Chillida Lekun bertan lan eginda, dendako arduradun gisa, arteari eta arteari buruzko argitalpenei buruzko zaletasun bizia izango duzu. Gainera, esperientzia ezin hobea bermatuko duzu bisitari guztientzat eta merkataritzako estandar altuenak errespetatuko dituzu.

*Egitekoen artean daude, besteak beste, honako hauek:*

- Bezeroei zerbitzu emateko estandar bikainen arabera jokatzea denda barruan eta bezeroei esperientzia ezin hobea eskaintzea hutsik gabe.
- KPIen neurketa sendoak egitea bezeroen konpromisoa eta esperientzia hobetzeko.
- Produktuak beti estandar altu baten arabera aurkeztea denda barruan, erakusteko estandar bisualei, salgaien egoerari eta garbitasun orokorrari dagokionez.
- Stockaren kontrola eta galeren prebentzioa: salmenten joeren aurrean jokatzea eta informazioa ematea aldian behin produktu-garapenaren koordinatzaileari operazioen eskari guztiak betetzen direla bermatzeko.
- Dendako saltzaile taldea kudeatzea; bertan sartzen da prestakuntza ematea, emaitzak kudeatzea, lanak banatzea, langileak bilatzea eta haien ongizatea bermatzea.
- Txostenak, analisiak eta dendaren inguruko iritziak ematea Museoko Zuzendaritzak eskatzen duenean, hark eskatu bezala.
- Dendako behar guztiak betetzen direla bermatzea langilearen absentzietan, langile nahikoa dagoela eta ireki eta ixteko prozedurak betetzen direla barne hartuta.
- Operazioen kostuak ezarritako aurrekontuaren barruan mantentzea.
- Dendako instalazioen, salgaien eta eskudiruaren segurtasunari eustea.
- Biltegien eta dendaren atzeko eremu guztien mantentze-lanen arduraduna izatea.
- Marketineko ekimenak eta ekitaldiak iradokitzea, museoaren jarduerekin bat eginez.
- Agiri guztiak dagokion alderdiari epe barruan igortzen zaizkiola bermatzea.
- Stockak beste dendetara bidaltzeaz eta stock-bidalketak jasotzeaz arduratzea.

MUSEO CHILLIDA LEKU

*Baldintzak:*

- 3 urtetik gorako esperientzia izatea dendako lidergo-posizioetan, hobe museo, galeria, argitalpen edo maila altuko denda-ingurune batean.
- Merkataritza-gaitasun sendoak eta finantza-emaitzak lortzeko historia izatea.
- Merkataritzako eta produktuak kokatzeko gaitasun bisual bikainak izatea.
- Idatziz eta hitzez komunikatzeko gaitasun onak izatea.
- Euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez ondo hitz egitea; gainerako hizkuntzak plus gisa baloratuko dira.
- Talentu handiko pertsonak kontratatu eta garatu izanaren frogak izatea.
- Esperientzia izatea prestakuntza eta aholkuak ematen eta gatazkak konpontzen.
- Ordenagailua maila altuarekin erabiltzen jakitea, MS PowerPoint, Word, Excel eta Outlook barne.

**Lanpostu mota eta asteko lanaldia**

40 orduko lanaldi osoko lanpostua da. Beharrezkoa da ordutegi irregular batean lan egitea, asteburu eta zubietan barne.

→Astean 5 egunez egin behar da lan, eta malgutasun osoa behar da astegunetan eta asteburuetan, 07:30etik 22:30era.

Eskabideak emailez bakarrik jasotzen ditugu, bidali zure curriculuma, aurkezpen-gutuna eta erreferentziak helbide honetara: rrhh@museochillidaleku.com